

“KOSMODISEAK ERRONKA BERRIAK PROPOSATU ETA SORMENA SUSTATZEN DU”



Kosmodisea 2008-2009 | Ikono Planeta | Zikloak | (Nazaret Zentroa)

“Zikloak” kategorian puntuazio bikaina lortu duen Nazaret Zentroko taldearen arduradun Mertxe Jimenok honakoa aitortu digu Ikono Planetan lorturiko errekonozimenduaren inguruan: *“harrotasunez jaso dugu, garrantzitsuena parte hartzea bada ere”* aitortu digu. *“Animu-injekzioa da aurkezturiko lan guztien artean gurea nabarmendu dutela ikustea”*.

Mertxe Jimenoren iritziz, zailena *“beste talde baten ideian oinarrituta lan egitea izan da, sortu zuen taldearen tokian jartzea eta, batez ere, mezu bat hedatzeko moduarekin asmatzea, teknologia-alderdietatik haratago”*. Jimenok dio ere garrantzitsuena ondorengo esaldian oinarritzea izan dela: *“komunikazioak unibertsala izan behar du, mezua XXI. mendean ulertua izateko oztoporik egon ez dadin lortu behar dugu”*.

- **Zer da orain arte interesgarriena suertatu zaizuen Kosmodisean parte hartzeari dagokionean?**
- *Erronka berriei aurre egitea, sormena askatzea eta beste partaideek beren lanak nola gauzatu dituzten ikustea ideia (TRAD-O-Matic itzulpen-lepokoa) eta formatu berberetik abiatu eta gero.*

- **Eta zeintzuk izan dira alderdirik korapilatsuenak edo ekitaldi honetan parte hartzeari dagokionean?**
- *“Space Quest” taldea Informatika-Sistemen Administrazioaren 2. kurtsoko ikaslez osatuta dago. Ikasleak azken azterketetan eta enpresa-praktiken hasieran egotea izan da bigarren planeta honetako arazorik larriena. Horrek talde biltzeko zailtasunak, laurak elkarrekin egoteko denbora lortzeko zailtasun gehiago ekarri ditu.*

- **Nola ekingo diozue Kosmodisea 2008-2009ko azken etapari?**
- *Gogotsu, beraiek duten hoberena emateko prest eta ekimen honi esker ikasten ari daudelaz kontziente izaki.*